## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**277/2025 Erabakia, maiatzaren 20koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea 2025eko ekitaldian obra txikiak egiteko laguntza lerroaren ebazpena, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 4ko 336/2024 Erabakiaren bidez deitua**

Ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak obra txikiak gauzatzeko programa arautzen du III. tituluan.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 4ko 336/2024 Erabakiaren 19. artikuluan xedatutakoari jarraituz, onespena eman zitzaion Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeetan Obra txikiak gauzatzeko 2025eko Programaren laguntza lerroari, zeina ALHAOn argitaratu baitzen, 65. zenbakian, 2024ko ekainaren 10ean.

Erabaki horren bigarren xedapenean, “10203. G/459100/76800100 Obra txikiak gauzatzea” aurrekontu partidan 1.961.995,00 euro esleitu ziren, baina 2025eko ekitaldian deialdiaren ondoriozko ordainketei aurre egiteko kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean.

Erabaki horren hirugarren xedapeneko hirugarren puntuan adierazten denez, «Hasierako finantza zuzkidura Arabako Foru Aldundiaren 2025eko aurrekontuan agertzen diren partiden hasierako esleipenen batura da, hain zuzen, berariaz edo modu osagarrian obra txikiak egiteko finantzaketara zuzendu direnen batura. Zenbateko horiek hasierako zuzkiduraren ehuneko 50eraino handitu ahal izango dira. Dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da partidan kreditua egotea”.

Arabako Lurralde Historikoaren 2025erako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 17ko 18/2024 Foru Arauan xedatutakoaren arabera, laguntza lerro hau finantzatzeko aurreikusitako aurrekontu erabilgarria, guztira, 3.044.216,00 eurokoa da.

Bestalde, egindako eskaerak aztertu ondoren, Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak, prozeduraren instrukzio organoa denez gero, txostena egin du, eta, horren arabera, diruz lagunduko dira diruz lagundu daitezkeen jarduketa guztiak, eta eman beharreko zenbatekoa 2.827.154,53 euro da.

Dagoen aurrekontu erabilgarritasuna kontuan hartuta, onespena ematen zaio obra txikiak gauzatzeko 2025eko deialdiko laguntzak emateko esleipen gehikuntza egiteari.

Ondorioz, laguntza programa hau finantzatzeko “10203. G/459100/76800100 Obra txikiak gauzatzea” izeneko partidaren azken diru esleipena kontuan hartuta, eta, bat etorriz 21/2013 Foru Arauaren 21. artikuluan ezarritakoarekin, kide anitzeko organoak obra txikiak gauzatzeko laguntzen 2025eko programaren ebazpen proposamena egin du. Proposamen horrek bi eranskin ditu, eta organo horrek Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu Kontseiluari aurkezten dion behin betiko ebazpen proposamena da.

Horrenbestez, nahitaezko txostenak eta kide anitzeko organoaren akta aztertu dira, eta Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea I. eranskinean zerrendatzen diren Arabako toki erakundeei dirulaguntza emateari, obra txikiak gauzatzeko 2025eko deialdiaren kontura, adierazitako kontzeptu eta zenbatekoen arabera; guztira, 2.827.154,53 euro dira.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Bigarrena. Toki erakunde onuradunak dirulaguntza onartu duela ulertuko da baldin eta, erabaki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita 15 egun balioduneko epean, ez badio dirulaguntzari uko egiteko idazkirik aurkezten Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Orekaren Zuzendaritzari.

Hirugarrena. Dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2025eko aurrekontuko "10203. G/459100/76800100 Obra txikiak gauzatzea" partidaren kontura emango dira.

Laugarrena. Toki erakundeak, obra hasi aurretik, udal lizentzia eduki beharko du, lizentzia hori nahitaezkoa bada, edo, bestela, udalerriko hirigintza aholkularitzaz arduratzen den teknikariaren aldeko txostena.

Bosgarrena. Toki erakunde onuradunak, adierazitako baldintzak betetzen dituen obra baimenaz gainera, organo eskudunen baimenak edo aldeko txostenak bidali beharko dizkio Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuari, egin beharreko jardunak sektoreko legeriaren baten eraginpean baldin badaude. Dirulaguntza ordaintzeko, aipatutako baldintza bete beharko da.

Seigarrena. Emandako dirulaguntza ez da handituko.

Zazpigarrena. Obrak egiteko epea 2025eko azaroaren 30ean amaituko da. Epe bera izango da obra gauzatu dela justifikatzeko dokumentuak aurkezteko.

Zortzigarrena. Salbuespen gisa, 2025eko abenduaren 31ra arte luzatu ahal izango da obra amaitzeko eta obra egin dela justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko epea, hartarako ahalmena duen Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko titularrak berariaz onetsi beharko duen justifikazioa aurkeztu ondoren. Epe hori ezingo da inolaz ere egun hori baino geroagora luzatu. Nolanahi ere, epea luzatzeko eskaera 2025eko urriaren 31 baino lehen bidali beharko da.

Bederatzigarrena. Erakundeak bere gain hartu beharko du obraren finantzaketa osoa.

Hamargarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordainduko du dirulaguntza, Toki Azpiegitura eta Ekipamenduen Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak laguntzak justifikatzeko dokumentazioa onetsi ondoren. Dokumentazio hori telematikoki aurkeztu beharko da, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen izapide espezifikoaren bidez: https://egoitza.araba.eus/eu/-/obras-menores. Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

— Dirulaguntzaren onuradun den toki erakundearen izenean egindako fakturak eta, hala badagokio, obra ziurtagiriak.

— Erakunde onuradunak fakturak onartu izanaren ziurtagiria.

— Erantzukizunpeko adierazpena, jasotzen duena jatorrizko dokumentazioarekin guztiz bat datorrela emandako laguntza justifikatu nahian Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu den dokumentazioa, eta erakunde onuradunaren legezko helbidean gordailututa dagoela.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan 35.000,00 eurotik gorakoa, inolaz ere. Hori gertatuz gero, emandako dirulaguntza osorik baliogabetuko da.

Erakundeak, justifikazio agiriekin batera, enpresari egindako ordainketen egiaztagiriak aurkeztu ahal izango ditu. Erakundeak une horretan aurkezten ez baditu, gehienez bi hilabete izango ditu, dirulaguntza jasotzen duenetik aurrera, egiaztagiriak aurkezteko.

Eskatutako egiaztagiriak aurreko paragrafoan adierazitako epean bidaltzen ez badira, dagokion dirulaguntza gehi berandutze interesak itzultzeko prozedura hasiko da.

Hamaikagarrena. Ukatzea Obra txikiak gauzatzeko 2025eko deialdiko dirulaguntzak II. eranskinean zerrendatzen diren Arabako toki erakundeei, ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren hainbat artikulu aplikatuz.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hamabigarrena. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea espediente horiek izapidetzeko behar diren egintza eta xedapenak eman ditzan.

Hamahirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hamalaugarrena. Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorriz Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 20a

*Diputatu nagusia*
*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko diputatua*
*LAURA PEREZ BORINAGA*

*Lurralde Orekaren jarduneko zuzendaria*
*Baimenduta*
*JON ANDA LÁZPITA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## I. ERANSKINA. OBRA TXIKIAK. 2025AN EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

| URTEA | ESP. | ERAK. MOTA | ERAKUNDEA | OBRA | AURKEZTUTAKO AURREKONTUA | AURREKONTUA LAGUNGARRIA | DIRULAGUNTZA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2025 | 2105 | AB | Aberásturi | Areto futboleko pista | 34.913,34 | 34.913,34 | 22.723,93 |
| 2025 | 2108 | AB | Abornikano | Larrainzar kaleko lurpeko euri uren kolektorea konpontzea | 5.971,35 | 5.971,35 | 5.374,22 |
| 2025 | 2167 | AB | Acebedo | Herriko zubia garbitzea eta konpontzea | 1.996,50 | 326,70 | 294,03 |
| 2025 | 2097 | U | Agurain | Foruen kaleko azken tarteko zoladura konpontzea | 34.964,16 | 34.964,16 | 22.739,24 |
| 2025 | 2171 | U | Aiara | Anfiteatroa eraikitzea | 34.961,74 | 30.985,70 | 21.384,56 |
| 2025 | 2094 | AB | Albeiz | Edateko uraren ihesa | 34.969,00 | 28.900,00 | 20.547,90 |
| 2025 | 2014 | U | Alegría-Dulantzi | Sareko haur jokoa instalatzeko lurzorua egokitzea eta banku taulak plastiko birziklatuarekin ordeztea | 34.500,00 | 34.500,00 | 22.597,50 |
| 2025 | 2021 | AB | Alegría-Dulantzi | Los Romanos bidea egokitzea (erregistroa: AFA 001-014-6) | 30.764,55 | 30.764,55 | 21.299,97 |
| 2025 | 2130 | AB | Ametzaga Zuia | Arieta bidea egokitzea Ametzaga Zuian | 34.991,45 | 34.991,45 | 22.747,43 |
| 2025 | 2077 | U | Amurrio | Amurrioko San Roke kaleko hegoaldeko tartearen errodadura geruza berritzea | 34.991,73 | 34.991,73 | 22.747,52 |
| 2025 | 2131 | AB | Anda | Garbitegia zaharberritzea | 29.594,18 | 29.594,18 | 20.836,03 |
| 2025 | 2098 | AB | Antezana de la Ribera | Las Callejas bidea leheneratzea | 18.828,13 | 18.828,13 | 15.283,15 |
| 2025 | 2102 | AB | Añua | Erregistratutako bideak konpontzea | 34.871,50 | 34.871,50 | 22.711,28 |
| 2025 | 2148 | AB | Apilaiz | Birgaitzea eta hobekuntzak plazan | 8.883,82 | 8.883,82 | 7.995,44 |
| 2025 | 2045 | AB | Apodaka | Apodaka-Letona bidea konpontzea | 29.359,92 | 29.359,92 | 20.739,87 |
| 2025 | 2048 | K | Arabako Lautada | Arabako Lautadako Kuadrillaren egoitza berritzea | 19.070,27 | 19.070,27 | 15.433,52 |
| 2025 | 2009 | AB | Arkaia | Proiektua ponpaketa etxola leheneratzean datza, estalkia zaharberritu eta herriko haurrentzako jolas txoko gisa erabiltzeko. | 19.071,86 | 18.708,86 | 15.208,65 |
| 2025 | 2038 | U | Armiñón | Kiroldegiaren inguruan lurzatia egokitzea | 26.576,14 | 26.576,14 | 19.513,23 |
| 2025 | 2019 | U | Arratzua-Ubarrundia | Telefónicako lokal zaharra egokitzea | 29.352,12 | 28.612,04 | 20.425,55 |
| 2025 | 2040 | AB | Arrieta | Ezkerekotxarako bidea egokitzea eta hobetzea | 34.992,72 | 34.992,72 | 22.747,82 |
| 2025 | 2124 | AB | Arriola | Luberrietarako bidea konpontzea | 11.682,77 | 11.682,77 | 10.317,90 |
| 2025 | 2059 | AB | Arroiabe | Lorategi bio-osasungarriaren estalkia | 34.763,97 | 34.763,97 | 22.678,63 |
| 2025 | 2057 | AB | Artomaña | Itxolo bidea konpontzea | 34.782,66 | 34.782,66 | 22.684,33 |
| 2025 | 2170 | U | Artziniega | Barcena auzoan haurrentzako jolas eremua sortzeko espazioa egokitzeko obrak | 34.999,88 | 34.999,88 | 22.749,96 |
| 2025 | 2081 | U | Asparrena | Hainbat konponketa egitea Araian kokatuta dagoen erabilera sozialetarako udal eraikinean | 34.991,50 | 34.991,50 | 22.747,45 |
| 2025 | 2187 | AB | Atiaga | Edukiontziak estaltzea | 10.883,24 | 10.883,24 | 9.698,79 |
| 2025 | 2026 | AB | Audikana | Kirol eremuari atxikitako ezponda egokitzea | 7.685,86 | 7.685,86 | 6.917,27 |
| 2025 | 2115 | AB | Azazeta | Tartea hormigoiztatzea Gazarrieta bidean, herrigunearekin bat egiten duen tokian | 9.722,35 | 8.962,32 | 8.066,09 |
| 2025 | 2196 | AB | Bachicabo | Ur biltegirako bidea egokitzea (lehen tartea) | 11.793,87 | 11.793,87 | 10.402,92 |
| 2025 | 2028 | AB | Baranbio | Garrastatxuko etxola zaharberritzeko II. fasea | 34.385,77 | 34.385,77 | 22.561,96 |
| 2025 | 2146 | U | Bastida | Zumarren zeharbidea kaleko zoladura konpontzea | 34.931,26 | 27.599,19 | 19.982,04 |
| 2025 | 2152 | AB | Berantevilla | Zentro soziala egokitzea | 34.998,05 | 34.998,05 | 22.749,41 |
| 2025 | 2125 | AB | Bergonda | Kontzejuaren etxea berregokitzea | 33.783,20 | 33.783,20 | 22.370,15 |
| 2025 | 2078 | AB | Bernedo | Hornidura adarra berritzea | 3.221,06 | 2.662,03 | 2.395,83 |
| 2025 | 2166 | U | Bernedo | Haurreskola berritzeko obrak | 22.135,58 | 22.135,58 | 17.235,74 |
| 2025 | 2158 | U | Bilar | Udal igerilekuko hondartzak konpontzea | 34.660,45 | 34.660,45 | 22.646,98 |
| 2025 | 2114 | AB | Birgaragoien | Hormak pikatzea eta junturak berdintzea Birgarabarrengo garbitegian | 2.964,50 | 2.964,50 | 2.668,05 |
| 2025 | 2197 | AB | Bóveda | Markesina | 30.111,51 | 30.111,51 | 21.044,48 |
| 2025 | 2135 | AB | Bujanda | Leihoak ordeztea kontzeju aretoan | 10.191,35 | 10.191,35 | 9.152,71 |
| 2025 | 2005 | AB | Burgelu | Landaderra bideko zolatzea | 25.459,00 | 25.459,00 | 18.977,39 |
| 2025 | 2023 | U | Burgelu | Haur parkea ordeztea | 34.727,00 | 34.727,00 | 22.667,35 |
| 2025 | 2067 | AB | Durruma | Frontoiko hormak konpontzea eta pintatzea | 33.486,75 | 33.486,75 | 22.273,13 |
| 2025 | 2046 | AB | Egilatz | Haurrentzako eremu berria | 34.998,83 | 34.490,63 | 22.594,59 |
| 2025 | 2079 | AB | Egino | Administrazio batzarraren biltegia konpontzea | 28.260,19 | 28.260,19 | 20.273,81 |
| 2025 | 2058 | AB | Ehari | Zentro sozialeko leihoak ordeztea | 22.520,52 | 22.520,52 | 17.448,78 |
| 2025 | 2015 | U | Elciego | Itxitura eta sarbide eskailerak partzialki berritzea eta udal igerilekuetako kirol pistako zenbait elementu hobetzea Eltziegon | 34.999,64 | 34.999,64 | 22.749,89 |
| 2025 | 2188 | AB | Elgea | Petrila konpontzea | 9.571,10 | 9.571,10 | 8.613,99 |
| 2025 | 2128 | AB | Elosu | Armora bidearen hasierako tartea konpontzea Elosun (Araba) | 23.562,39 | 23.562,39 | 18.010,53 |
| 2025 | 2061 | AB | Erbi | Lujatea bidea konpontzea | 9.894,17 | 9.894,17 | 8.904,75 |
| 2025 | 2112 | U | Erriberabeitia | Aire girotua instalatzea eta irisgarritasuna hobetzea Eguneko Arretarako Landa Zentroan | 34.975,18 | 34.975,18 | 22.742,55 |
| 2025 | 2150 | U | Erriberagoitia | Mediku kontsultategiaren barnealdea eraberritzea | 32.645,57 | 32.645,57 | 21.988,24 |
| 2025 | 2093 | AB | Erroeta | Iturri zaharra eta garbitokiko teilatua berritzea | 7.662,93 | 7.662,93 | 6.896,64 |
| 2025 | 2087 | U | Eskuernaga | El Monte kaleko zoladura berritzea | 34.989,57 | 16.752,00 | 13.945,70 |
| 2025 | 2184 | AB | Etxabarri Ibiña | Leihoak ordeztea kontzejuko eraikinean | 29.055,73 | 29.055,73 | 20.613,38 |
| 2025 | 2092 | AB | Etxabarri Kuartango | Txokoa eraberritzea kontzeju etxean | 28.528,17 | 25.382,17 | 18.939,62 |
| 2025 | 2145 | AB | Etxabarri Urtupiña | Ermita eta hilerria egokitzea | 27.618,55 | 27.618,55 | 19.990,71 |
| 2025 | 2065 | AB | Faidu | Kontzejuko biltegiaren barnealdea egokitzea | 9.943,95 | 9.943,95 | 8.949,56 |
| 2025 | 2104 | AB | Fontecha | Joaquín Lucarini kaleko aisiarako espazioa egokitzea eta birmoldatzea | 34.636,25 | 34.636,25 | 22.639,55 |
| 2025 | 2016 | AB | Foronda | Erruki kutxako gordailua birgaitzea Forondan | 28.247,45 | 27.760,43 | 20.054,02 |
| 2025 | 2122 | AB | Gatzaga Buradon | Zabuen estalkia geobelaz eta hesia berritzea | 22.474,54 | 22.474,54 | 17.423,49 |
| 2025 | 2176 | U | Gaubea | Udal igerilekuko leihoa aldatzea | 27.307,28 | 27.307,28 | 19.850,40 |
| 2025 | 2141 | AB | Gaztelu | Barbakoa eta zentro sozialerako arrapala eraikitzea | 29.550,52 | 28.098,52 | 20.203,25 |
| 2025 | 2117 | AB | Gebara | Santa Katalina kalea egokitzea eta bertako segurtasuna hobetzea | 25.543,76 | 25.543,76 | 19.018,92 |
| 2025 | 2126 | AB | Gereñu | Kaltetutako bideak konpondu eta kontserbatzea | 17.744,61 | 16.866,27 | 14.021,56 |
| 2025 | 2185 | AB | Gordoa | Erretegi estalia | 14.021,56 | 14.021,56 | 12.055,52 |
| 2025 | 2168 | AB | Gurendes-Quejo | Gurendesko edateko uraren biltegira sartzeko bidea zolatzea | 24.531,54 | 20.102,40 | 16.061,34 |
| 2025 | 2037 | AB | Hermua | Bidea egokitzea | 25.277,45 | 25.277,45 | 18.887,96 |
| 2025 | 2062 | AB | Ibarguren | Haurrentzako jolasak ordeztea | 34.989,57 | 34.989,57 | 22.746,87 |
| 2025 | 2103 | U | Iekora | Iekorako bideak egokitzea | 34.895,19 | 34.895,19 | 22.718,45 |
| 2025 | 2096 | AB | Igai | Kontzeju aretoa hobetzeko obrak eta mantentze lanak | 24.273,41 | 24.273,41 | 18.381,43 |
| 2025 | 2003 | AB | Ilarratza | Zubia konpontzea | 28.078,05 | 14.938,96 | 12.707,23 |
| 2025 | 2173 | U | Iruña Oka | Langraiz Okako gizarte etxerako sarbideak iragazgaiztea | 34.935,88 | 34.935,88 | 22.730,72 |
| 2025 | 2030 | AB | Ixona | Saneamendu banatzaileko konexioak hobetzea | 5.291,63 | 5.291,63 | 4.762,47 |
| 2025 | 2024 | AB | Izarra | Ostuñoko aparkalekua egokitzea eta berrantolatzea | 34.991,36 | 26.500,86 | 19.477,90 |

| URTEA | ESP. | ERAK. MOTA | ERAKUNDEA | OBRA | AURKEZTUTAKO AURREKONTUA | AURREKONTUA LAGUNGARRIA | DIRULAGUNTZA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2025 | 2076 | AB | Izoria | Egurtegirako eraikina | 28.011,45 | 28.011,45 | 20.165,04 |
| 2025 | 2066 | U | Kanpezu | Kanpezuko udal pilotalekuko pintura eta lurzoruak hobetzea | 34.276,75 | 34.276,75 | 22.527,79 |
| 2025 | 2002 | AB | Kexaa | Billodako bidea | 12.412,93 | 12.412,93 | 10.872,12 |
| 2025 | 2194 | AB | Komunioi | Kontzeju etxeko solairuartea zaharberritzea | 16.902,49 | 16.902,49 | 14.045,55 |
| 2025 | 2163 | U | Kripan | El Encinal bidea konpontzea | 34.999,98 | 34.999,98 | 22.749,99 |
| 2025 | 2100 | AB | Labraza | Hezetasunak saneatzea Labrazako erabilera anitzeko eraikinean | 34.994,29 | 34.994,29 | 22.748,29 |
| 2025 | 2031 | AB | Lagrán | La Música plazako altzariak egokitzea | 21.519,85 | 21.519,85 | 16.888,81 |
| 2025 | 2137 | U | Lagrán | Aldagela zaharren barnealdea egokitzea | 28.900,85 | 28.900,85 | 20.548,26 |
| 2025 | 2165 | U | Laguardia | Barbacana plazako hiri ingurunea leheneratzea, haur parkea instalatuz | 34.981,10 | 34.981,10 | 22.744,33 |
| 2025 | 2032 | AB | Langarika | Bolatoki-eskolako teilatua konpontzea: erabilera anitzeko zentroa | 19.937,17 | 19.937,17 | 15.962,26 |
| 2025 | 2043 | U | Lantarón | General Química enpresari erositako lurzatiko kotxetegi zaharrak konpontzea udal zerbitzuetarako lokal gisa erabiltzeko | 31.084,90 | 31.084,90 | 21.422,19 |
| 2025 | 2172 | U | Lantziego | Lantziegoko zentro sozialean egin beharreko ekintzak | 34.975,05 | 34.975,05 | 22.742,51 |
| 2025 | 2033 | U | Lapuebla de Labarca | La Fuente kaleko zoladura berritzea | 34.985,01 | 26.537,42 | 19.495,07 |
| 2025 | 2054 | AB | Larrazubi | Zentro sozialean energia eraginkortasuna handitzeko eta bainu publikoa eta egurtegia konpontzeko hainbat lan | 23.461,50 | 23.461,50 | 17.957,08 |
| 2025 | 2047 | AB | Larrea | Kirol anitzeko pista jartzea | 25.123,53 | 25.123,53 | 18.811,61 |
| 2025 | 2049 | U | Laudio | Galtzada egonkortzeko obra Bitorika kaleko 5 zenbakian | 34.774,72 | 27.669,60 | 20.013,53 |
| 2025 | 2063 | AB | Legarda | Bio-osasungarriak | 30.173,44 | 30.173,44 | 21.069,08 |
| 2025 | 2064 | U | Legutio | Ludoteka gela egokitzea Legutioko (Araba) kultur etxearen barruan | 34.880,84 | 34.880,84 | 22.714,11 |
| 2025 | 2101 | AB | Legutio | San Roke pasealekuak konpontzea | 34.134,75 | 23.394,17 | 17.921,30 |
| 2025 | 2074 | AB | Lexartzu | Gorobel mendilerrorako bidea konpontzea | 9.995,21 | 9.995,21 | 8.995,69 |
| 2025 | 2083 | U | Leza | Lezako udal igerilekuko aldagelak konpontzea | 34.925,00 | 34.925,00 | 22.727,44 |
| 2025 | 2110 | AB | Lezama | Bainugela egokitua jartzea eta beste eraberritze batzuk Lezamako txokoan | 34.745,02 | 34.745,02 | 22.672,86 |
| 2025 | 2008 | AB | Leziñana | Llano-Sedoñas bidea leheneratu eta egokitzea | 29.452,61 | 29.452,61 | 20.778,05 |
| 2025 | 2157 | AB | Luiaondo | Eskailerak berregokitzea estanko zaharretik elizara | 34.999,99 | 34.104,14 | 22.473,22 |
| 2025 | 2106 | AB | Luna | Lunatik Gillarterako lurzati bidea konpontzea | 34.998,04 | 34.998,04 | 22.749,41 |
| 2025 | 2121 | AB | Luzuriaga | Luzuriagako kolektorea konpontzea | 16.850,25 | 13.925,83 | 11.986,54 |
| 2025 | 2050 | AB | Manzanos | Manzanosko haurrentzako eremuetako zabuak konpontzea | 14.029,95 | 7.784,84 | 7.006,36 |
| 2025 | 2022 | U | Mañueta | Mañuetako El Barco bidea egokitzea eta zolatzea | 34.563,02 | 34.563,02 | 22.617,00 |
| 2025 | 2068 | AB | Marieta-Larrintzar | Espaloiak konpontzea Ibaisolo eta Galtzarra kaleetan | 30.020,10 | 13.960,00 | 12.011,18 |
| 2025 | 2001 | AB | Marinda | Kontzejuaren eta askotariko erabileretarako aretoaren lurzatia ixtea eta egokitzea | 34.891,23 | 34.891,23 | 22.717,25 |
| 2025 | 2193 | AB | Markina | Motzondoak kentzea eta gainazala nibelatzea | 5.989,50 | 5.989,50 | 5.390,55 |
| 2025 | 2051 | AB | Markinez | Etxea birgaitzea, tresna txikiak gordetzeko eta artxiborako | 34.845,58 | 34.845,58 | 22.703,44 |
| 2025 | 2186 | AB | Maturana | Pintura lana zentro sozialean eta edukiontzietan | 4.525,40 | 4.525,40 | 4.072,86 |
| 2025 | 2004 | AB | Menagarai-Beotegi | Done Petriren elizaren ondoko eraikinean estalkipean sartzeko eskailera egokitzea | 34.893,74 | 34.893,74 | 22.718,01 |
| 2025 | 2013 | AB | Mendiguren | Udaia-Arlaza bidea egokitzea | 17.568,84 | 17.568,84 | 14.482,20 |
| 2025 | 2191 | AB | Menoio | Mendia bidea hobetzea Menoion (Araba) | 34.988,86 | 34.988,86 | 22.746,66 |
| 2025 | 2072 | AB | Mezkia | Lursail publikoa egokitzea | 34.989,57 | 34.989,57 | 22.746,87 |
| 2025 | 2195 | AB | Molinilla | Euri zorrotenak muntatzea, teilatuaren erlaitza zaharberritzea, babesa eta elizan sartzeko atea jartzea | 30.052,77 | 30.052,77 | 21.021,08 |
| 2025 | 2181 | AB | Narbaiza | Haurrentzako parkeko mahaietarako estalkia | 34.182,73 | 34.182,73 | 22.498,14 |
| 2025 | 2095 | U | Navaridas | Los Olivares kaleko zoladura konpontzea | 34.962,95 | 34.962,95 | 22.738,87 |
| 2025 | 2075 | AB | Navarrete | Navarretera sartzeko bidearen erdiko tartea zolatzea | 28.370,11 | 27.281,99 | 19.838,92 |
| 2025 | 2053 | AB | Ocio | Garbitegia zaharberritzea (III. fasea) | 31.543,61 | 30.780,86 | 21.306,25 |
| 2025 | 2027 | AB | Okoizta | Okoizta - San Pedro bidea zolatzea (Suchares) | 34.972,44 | 34.972,44 | 22.741,72 |
| 2025 | 2140 | U | Okondo | Done Erroman ikastetxearen ondoko espazioa egokitzeko obra | 34.999,98 | 34.999,98 | 22.749,99 |
| 2025 | 2149 | AB | Olabarri | Ur hornidurako sarea egokitzea | 31.369,77 | 7.835,40 | 7.051,86 |
| 2025 | 2084 | AB | Olabezar | Uriarte-Matxintxu bidea hobetzea | 34.932,85 | 34.374,08 | 22.558,31 |
| 2025 | 2080 | AB | Olano | Kaleen konponketa partziala | 34.989,57 | 34.989,57 | 22.746,87 |
| 2025 | 2012 | AB | Opellora | Norzagaratik Txabarrirako bidea konpontzea | 34.864,94 | 34.864,94 | 22.709,30 |
| 2025 | 2164 | AB | Orbiso | Mendia ixteko ateak konpontzea eta bideak garbitzea | 18.156,05 | 1.754,23 | 1.578,81 |
| 2025 | 2007 | AB | Oreitia | Zabu parkea birmoldatzea | 34.449,61 | 34.449,61 | 22.581,85 |
| 2025 | 2091 | AB | Ormijana | Kontzeju aretoko fatxada egokitzea | 8.903,60 | 8.903,60 | 8.013,24 |
| 2025 | 2169 | AB | Osma | Aisia gunerako espazioaren estalkia | 33.829,88 | 33.829,88 | 22.385,27 |
| 2025 | 2071 | AB | Oteo | Lurzati bidearen tartea hormigoiztatzea | 14.999,01 | 14.999,01 | 12.749,31 |
| 2025 | 2041 | AB | Otogoien | Bolatokiko estalkia konpontzea | 2.952,40 | 2.952,40 | 2.657,16 |
| 2025 | 2039 | U | Oyón-Oion | Udal igerilekuetako oinezkoentzako zenbait azalera egokitzea | 34.999,83 | 34.999,83 | 22.749,95 |
| 2025 | 2123 | AB | Ozaeta | Guibelda landa bideak egokitzea Ozetan | 34.888,63 | 34.888,63 | 22.716,46 |
| 2025 | 2177 | AB | Pinedo | Iturriaren iturburuko kutxatila konpontzea eta hodiak berritzea | 7.683,52 | 7.683,52 | 6.915,17 |
| 2025 | 2099 | AB | Quintana | Erabilera anitzeko zentroa birgaitzea | 23.225,95 | 17.323,57 | 14.322,51 |
| 2025 | 2178 | AB | Quintanilla | Hezetasunak kentzea zentro sozialean | 12.131,45 | 12.131,45 | 10.659,73 |
| 2025 | 2011 | AB | Quintanilla de la Ribera | Baratzeetarako bidea mantentzea | 12.161,23 | 12.161,23 | 10.682,27 |
| 2025 | 2034 | AB | Retes de Llanteno | Baselizaren inguruak konpontzea | 28.332,56 | 14.474,30 | 12.379,25 |
| 2025 | 2070 | AB | Ribabellosa | Iturri zaharra leheneratzea | 34.485,00 | 34.485,00 | 22.592,85 |
| 2025 | 2156 | AB | Ribaguda | Ribagudako zentro soziala pintatzea | 30.189,50 | 30.189,50 | 21.075,44 |
| 2025 | 2035 | U | Samaniego | Eskoletako lorategi eremua berritzea | 13.989,08 | 13.989,08 | 12.032,14 |
| 2025 | 2107 | AB | Santikurutze Kanpezu | Los Ribazos bidea konpontzea eta egokitzea | 34.471,93 | 33.282,57 | 22.205,28 |
| 2025 | 2120 | AB | Sarria | Landakubei zubiko bidea konpontzea | 11.549,45 | 11.549,45 | 10.215,55 |
| 2025 | 2161 | AB | Sobrón | Irisgarritasuna Quijera baselizan | 32.579,45 | 32.579,45 | 21.965,24 |
| 2025 | 2160 | AB | Subijana-Morillas | "Korta arteko" bidea hormigoiztatzea Subilla Morillasen | 19.800,65 | 19.800,65 | 15.879,99 |
| 2025 | 2085 | AB | Subillana-Gasteiz | Zentro sozialeko konponketak | 28.568,10 | 28.568,10 | 20.406,74 |
| 2025 | 2000 | AB | Tertanga | Zentro sozialaren barne eraberritze lanak (azken III. fasea) | 34.883,03 | 34.883,03 | 22.714,77 |
| 2025 | 2198 | AB | Tobillas | El Puente kalea zolatzea | 34.969,00 | 27.920,00 | 20.124,74 |
| 2025 | 2189 | AB | Tuesta | Zentro sozialaren barnealdea eraberritzea (lurzorua, atea eta leihoak) | 19.892,40 | 19.892,40 | 15.935,32 |
| 2025 | 2025 | AB | Txintxetru | Bidea konpontzea | 34.934,14 | 34.934,14 | 22.730,20 |
| 2025 | 2144 | AB | Ullíbarri-Arrazua | Iturria egokitzea | 8.228,00 | 8.228,00 | 7.405,20 |
| 2025 | 2139 | AB | Uribarri Harana | Hilerria egokitzea | 31.873,82 | 22.798,82 | 17.600,96 |
| 2025 | 2129 | AB | Urrunaga | Nafarreteko kontzeju areto zaharra egokitzea (II. fasea) | 34.460,87 | 30.529,04 | 21.208,82 |
| 2025 | 2182 | AB | Urturi | Urturi erreka egokitzea eta pasabidea | 2.200,99 | 2.200,99 | 1.980,89 |
| 2025 | 2174 | AB | Villanañe | Omecillo zeharbideko banaketa sarea berritzea Villanañen | 12.998,80 | 12.998,80 | 11.309,11 |
| 2025 | 2190 | AB | Villanueva de Valdegovía | San Martín de Valparaiso bidea egokitzea eta ur biltegira sartzeko kurba hobetzea, eta hiri hondakin solidoen bilketa | 22.365,64 | 22.365,64 | 17.363,42 |
| 2025 | 2127 | AB | Zabalate | Zabalateko garbitegiko zertxa ordeztea | 9.374,23 | 9.374,23 | 8.436,81 |

| URTEA | ESP. | ERAK. MOTA | ERAKUNDEA | OBRA | AURKEZTUTAKO AURREKONTUA | AURREKONTUA LAGUNGARRIA | DIRULAGUNTZA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2025 | 2056 | AB | Zaitegi | Zentro sozialaren saneamendua aldatzea | 3.025,00 | 3.025,00 | 2.722,50 |
| 2025 | 2073 | U | Zalduondo | Urbiako goiko pistaren tartea egokitzea (I. fasea) | 34.780,35 | 34.780,35 | 22.683,62 |
| 2025 | 2010 | U | Zambrana | Udal biltegia egokitzea II. fasea | 34.963,49 | 31.607,36 | 21.617,11 |
| 2025 | 2006 | AB | Zestafe | Okoizta - San Pedro bidea zolatzea | 34.996,88 | 34.996,88 | 22.749,06 |
| 2025 | 2113 | U | Zigoitia | Udal lonja egokitzea, udalerriari zerbitzua emateko merkataritza lokal gisa erabiltzeko | 34.537,77 | 34.537,77 | 22.609,19 |
| 2025 | 2134 | AB | Zuhatza | Elizaren plaza zolatzea | 16.850,47 | 14.003,59 | 12.042,58 |
| 2025 | 2090 | AB | Zuhatzu Donemiliaga | Artzain etxea zaharberritzea | 34.865,42 | 34.865,42 | 22.709,44 |
| 2025 | 2154 | U | Zuia | Murgiako Palatu kiroldegiko jolas eremua berritzea eta hobetzea | 34.991,80 | 34.991,80 | 22.747,54 |
| | | | | Guztira | 4.216.585,81 | 4.002.375,46 | 2.827.154,53 |

ESP: Espedientea

AB: Administrazio Batzarra

U: Udala

## II ERANSKINA. OBRA TXIKIAK. 2025an UKATUTAKO DIRULAGUNTZAK, EKAINAREN 27ko 21/2013 FORU ARAUA

| URTEA | ESP. | ERAK. MOTA | ERAKUNDEA | OBRA | ARRAZOIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 2025 | 2116 | AB | Alaitza | Alaitzako Administrazio Batzarraren eraikinaren estalkia zaharberritzeko behar diren aldamioak instalatzea | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2086 | AB | Antoñana | Zentraleko bidea egokitzea (I. fasea) | Eskatutako jarduketaren guztizko kostuak gainditu egiten du 35.000 euroko gehieneko zenbatekoa |
| 2025 | 2055 | AB | Arespalditza | Haur parkeko lurzorua konpontzea | Obra hauek hamabost urtetik beherako ekipamenduen edo azpiegituren zati bat konpontzeko eta berritzekoak dira, edo azken hamabost urteetan sailak kudeatutako laguntza programen dirulaguntza jaso dute |
| 2025 | 2155 | AB | Basabe | Hilerriko bidea egokitzea | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2111 | U | Berantevilla | Hobetze obrak bolatokiko eraikinean | Obra hauek hamabost urtetik beherako ekipamenduen edo azpiegituren zati bat konpontzeko eta berritzekoak dira, edo azken hamabost urteetan sailak kudeatutako laguntza programen dirulaguntza jaso dute |
| 2025 | 2060 | AB | Betolaza | Presio ekipoa biltegi erregulatzailerako | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2136 | AB | Caicedo Yuso | Erorketen aurkako eskudelak jartzea | Eskatutako jarduketaren guztizko kostuak gainditu egiten du 35.000 euroko gehieneko zenbatekoa |
| 2025 | 2089 | AB | Delika | Hesia konpontzea | Obra hauek hamabost urtetik beherako ekipamenduen edo azpiegituren zati bat konpontzeko eta berritzekoak dira, edo azken hamabost urteetan sailak kudeatutako laguntza programen dirulaguntza jaso dute |
| 2025 | 2017 | AB | Durana | Farolak aldatzea Francisco Santos kalean Aiaran | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2175 | AB | Durruma Kanpezu | Jardinera zentro sozialean | Obra deialdi hau ebatzi aurretik hasi edo egin da |
| 2025 | 2180 | AB | Espejo | Leihoak aldatzea eta komuna eraberritzea | Obra hau lagatako edo alokatutako ondasun publikoetan egingo dira edo partikularrei beren erabilera pribaturako lagatzea edo alokatzea aurreikusitako ondasun publikoetan |
| 2025 | 2082 | AB | Gauna | Elizalde kalea handitzea | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2147 | AB | Gazeo | Kolunbarioak jartzea Gazeoko hilerrian | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2142 | AB | Gopegi | Murala egitea bolatokian eta garbitegian | Obra hauek hamabost urtetik beherako ekipamenduen edo azpiegituren zati bat konpontzeko eta berritzekoak dira, edo azken hamabost urteetan sailak kudeatutako laguntza programen dirulaguntza jaso dute |
| 2025 | 2044 | U | Harana | Euri uren instalazioa egokitzea eta hobetzea, eta zentro hipiko integratzailearen barneko mantentze lanak | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2151 | AB | Heredia | Diagonal kaleko tarte bat egokitzea | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2018 | AB | Ilarduia | Suhiltzaileentzako ur hartuneak aldatzea eta berriak jartzea. | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2179 | AB | Karkamu | Konponketak ur biltegian | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2052 | AB | Mendiola | Eskolako isolamendu termikoa eta berokuntza hobetzea | Obra hau lagatako edo alokatutako ondasun publikoetan egingo dira edo partikularrei beren erabilera pribaturako lagatzea edo alokatzea aurreikusitako ondasun publikoetan |
| 2025 | 2036 | AB | Monasterioguren | Bola jokorako tokia estaltzea | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2069 | AB | Murga | Markesina jartzea | Obra hauek hamabost urtetik beherako ekipamenduen edo azpiegituren zati bat konpontzeko eta berritzekoak dira, edo azken hamabost urteetan sailak kudeatutako laguntza programen dirulaguntza jaso dute, Obra toki erakunde eskatzailearena ez den titulartasun publikoko ondasunetan egin nahi da |
| 2025 | 2143 | AB | Murua | Jolasak instalatzea eta haur parkea hobetzea | Erakundeak ez zuen diruz lagundutako obra egin, programaren azken deialdiko laguntzen onuradun izan arren |
| 2025 | 2159 | AB | Páganos | Paganosko Bartolome eta Biazteri kaleetako zoladura konpontzea (Araba) | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2138 | AB | Salcedo | Kolunbarioak Salcedoko hilerrirako | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2118 | AB | Saratxo | Saratxoko elizaren plaza handitzea Amurrioko udalerrian (Araba) | Obra toki erakunde eskatzailearena ez den titulartasun publikoko ondasunetan egin nahi da, Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2132 | AB | Trespuentes | Egungo espaloia konpontzea Iruña zubiaren pasealekuan, Tresponden, zubitik harrobiko sarreraraino, hustubideak eta oztopo zutoinak jarrita | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2109 | AB | Ullíbarri-Gamboa | Argiak ordeztea | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2133 | AB | Urarte | Real kaleko azken zolatzea | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2088 | U | Urkabustaiz | Larrialdiko hornidurarako ur ponparako etxola konpontzea Izarran | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2183 | AB | Valluerca | Edukiontzien guneko ur bilketa | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| URTEA | ESP. | ERAK. MOTA | ERAKUNDEA | OBRA | ARRAZOIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 2025 | 2153 | AB | Villamaderne | Llano bidea egokitzeko eta hobetzeko proiektua (055-314-2) | Obra hauek hamabost urtetik beherako ekipamenduen edo azpiegituren zati bat konpontzeko eta berritzekoak dira, edo azken hamabost urteetan sailak kudeatutako laguntza programen dirulaguntza jaso dute |
| 2025 | 2020 | AB | Zambrana | Seinaleak eta bide marrak berritzea | Obra edo zerbitzua ez dago jasota 21/2013 Foru Arauaren 17. artikuluan |
| 2025 | 2029 | AB | Komunioi | Frontoiko teilatuan eguzki plakak instalatzea | Erakunde eskatzaileak eskaeran atzera egiteko idazkia aurkeztu du |
| 2025 | 2042 | U | Moreda Araba | Pilotalekuko plazako bolumena kentzea | Erakunde eskatzaileak eskaeran atzera egiteko idazkia aurkeztu du |
| 2025 | 2119 | AB | Llanteno | Las Calleja bidea egokitzea | Erakunde eskatzaileak eskaeran atzera egiteko idazkia aurkeztu du |
| 2025 | 2162 | AB | Pipaón | Oholtza eta teilak ordeztea | Erakunde eskatzaileak eskaeran atzera egiteko idazkia aurkeztu du |
| 2025 | 2192 | AB | Estavillo | Burgetatik Mirandarako 006-109-6 bidearen ertzak eta arekak garbitzea | Erakunde eskatzaileak eskaeran atzera egiteko idazkia aurkeztu du |

ESP: Espedientea
AB: Administrazio Batzarra
U: Udala



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2025.05.28 05:10:59 Z